

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OKONDOKO UDALA

#### **Jendaurrean jartzea uraren, zaborren eta estolderiaren 2020ko bigarren hiruhilekoko erroldak**

Ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuak jasotzeagatik 2020ko bigarren hiruhilekoko tasak ordaindu behar dituztenen Okondoko udalerriko erroldak egin eta alkatearen dekretu bidez onetsi ziren.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesdunek espedientearen udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onartzen dituen egintzaren aurka berraztertzearen errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldirian ordaintzeko epea hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2020ko abuztuaren 4tik irailaren 4ra artekoa.

Borondatezko aldirian ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldiria hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrek 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Ordainketak banku entitateetan helbideratuta dauzkaten zergadunek ez dute inolako ku-deaketarik egin beharrik, eta bankuak 2020ko abuztuaren 21ean egingo die kargua.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2020ko uztailearen 2a

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO*